

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO

DESGAITUEI EGUNEROKO
BIZITZAKO
ESPARRUETAN LAGUNTZEKO
BALIABIDE EKONOMIKOEI
BURUZKO GIDA.

III. LIBURUKIA: NORBANAKOAREN
AUTONOMIA ETA
MENDEASUN-EGOERAN
DAUDEN PERTSONEN ARRETA
SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK
(1. ZATIA)

2014an egindako araudi-aldaketa dela-eta, Gidaren II. Liburukia
beste Liburuki honek ordezkatu du, osorik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

eginaren
eginez

Zer diru-laguntza daude norbanakoaren autonomia eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta sustatzeko?

Kategoria honetan, zenbait diru-laguntza mota daude, zenbait administrazio emanak; zehazki, hauek:

- 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoak.
- Eusko Jaurilaritzaren 13/2008 Legean, Familiei laguntzekoan, jasotako prestazio ekonomikoak.
- Osasun Sistema Publikoaren barneko prestazio ortoprotesikoa.
- Desgaituentzako banakako laguntzak, Arabako Foru Aldundiak emanak.

Liburuki honetan, 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoak azaldu dira.

Zer prestazio ekonomiko jasotzen ditu 39/2006 Legeak? Prestazio horiek guztiak eska al ditzakete mendetasun-egoeran dauden pertsonak?

Hauek dira 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoak:

- Laguntzaile pertsonala hartzeko prestazio ekonomikoa.
- Ahaideak zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa.
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arrunta edota familiak atsedenaldira hartzeko modalitatea.

Mendetasun-egoera aitortzeko prozeduraren barnean, Banakako Arreta Programa (BAP) lantzen da. Programa horren bidez, mendetasun-egoeran dagoen pertsona bakoitzarentzat arreta-modalitate egokiena zein den erabakitzen da –39/2006 Legean jasotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen modalitateen artean–, kontuan hartuta zer premia dituen, mendetasun-mailaren arabera. Mendetasun-egoeran dagoen pertsonak BAPen beretzat egokitzen jo diren prestazio ekonomikoak soilik jasotzeko eskubidea izango du, hala badagokio. BAPen epe bat ezarriko da, jaso nahi diren prestazio ekonomikoen eskubidea egiteko dokumentazio espezifiko aurkezteko.

Interesdunak aukera izango du aitortu zaizkion gizarte-zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak berriz azter daitezela eskatzeko (eta aldatu egingo dira, titularraren premien, egoera pertsonalaren edo familiako egoeraren bilakaera kontuan hartuta egokitzen bada).

39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoen xedapen komunak

- a) Prestazioen onuradun izateko, beharrezkoa da Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egotea, prestazioak eskura-tzeko izapide-tzea egiteko dokumentazio osagarria aurkezteko ezarritako datan. Onuradunak jaso ditzakeen prestazioen zenbatekoa handiagoa izango da, baldin eta egiaztatzen badu lotura estua duela ALHrekin¹, 3 urtez baino gehiagoz errolatuta egoteagatik lurraldeko edozein udalerrian.

1 ALH: Arabako Lurralde Historikoa

- b) Prestazioen onuradun izan daitezke I mailako mendetasuna (40 puntu edo gehiago), II. mailakoa edo III. mailakoa aitortu zaien pertsonak (I. maila puntuazio baxuagoarekin aitortu zaien pertsonak eskubidea izango dute prestazio horiek jasotzeko, 2015eko uztailaren 1etik aurrera).
- c) 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoak bateragarriak dira beste hauekin:
- Baliaezintasun handiagatik osagarria, Gizarte Segurantzaren legerian jasoa (ikusitako gidaren 1. liburukia).
 - % 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen seme edo alaba bat, mendetasun-egoeran dagoena, ardurapean izateagatik diru-esleipenaren osagarria, Gizarte Segurantzaren legerian jasoa (ikusitako gidaren I. liburukia).
 - Ordaindutakoaren araberakoa ez den baliaezintasun-pentsioaren osagarria, hirugarrenen laguntza behar dutenei ematen zaiena, Gizarte Segurantzaren legerian jasoa (ikusitako gidaren I. liburukia).
 - Hirugarrenen laguntza jasotzeko diru-laguntza, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren jasoa.

(Foru Aldunditik jaso beharreko prestazio ekonomikoaren zenbatekotik kenduko da kontzeptu bateragarri horientzat jasotako zenbatekoa. Kontzeptu bateragarri horientzatiko kenkariak ez dira aplikatu, salbuespen gisa, onuradunak familiak atsedendaldi bat hartzeko modalitateko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa badu, eta zerbitzu hauetara jo behar badu: eguneko zentroa edo eguneko arretako zerbitzua; adinekoentzako gaueko zentroa; adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzua; desgaitasuna edo buruko gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzailearen zerbitzua; edota egoitza-zerbitzua edo -zentroa).

Halaber, prestazio horiek bateragarriak dira onuraduna Aldundiak ematen duen edozein zerbitzuren Plazak Kudeatzeko Programaren partaide izatearekin, bai eta laguntza-produktuak eskuratzeko edota etxebizitza egokitzeko Aldundiak ematen dituen xede jakin baterako laguntzekin ere.

- d) Onuradunak betebeharra du mendetasuna aitortzeko kontuan hartutako egoeran nahi prestazioen iraupenean eta zenbatekoan eragina duten inguruabarretan gertatutako edozein aldaketaren berri emateko.

Laguntzaile pertsonala hartzeko prestazio ekonomikoa

1.- Kontzeptua: Aldizkako prestazio ekonomiko bat da, helburu duena laguntzaile pertsonal bat edo batzuk kontratatzeak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzea, laguntzaileen egitekoa denean mendetasun-egoeran dagoen pertsonari heziketa jasotzeko edota lan egiteko bidea erraztea, bai eta eguneroko bizitzako oinarritzko zereginak egiteko autonomia handiagoa ematea ere.

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- Onuradunak I. mailako mendetasuna (40 puntu edo gehiago), II. mailakoa edo III. mailakoa aitortuta izatea.
- Onuradunak 3 urte edo gehiago izatea.

- Onuraduna gai izatea zer zerbitzu behar dituen adierazteko, zerbitzu horiek kontrolatzeko eta laguntzaile pertsonalari zerbitzu horiek egiteko jarraibideak emateko.
- BAPen bidez prestazio hori egokia dela iritzi izana.
- Heziketa- eta lan-jarduerak egitea eta horretarako laguntza behar izatea, bai eta eguneroko bizitzako oinarrizko zereginak egiteko ere.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari edo udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuari etxebizitzan sartzeko baimena ematea, prestazioa egokituz jotzeko oinarri hartutako baldintzek bere horretan irauten dutela egiazta dezan.

Laguntzaile pertsonalak baldintza hauek bete beharko ditu: 18 urtetik gorakoa izatea; Espainiako estatuan legez bizitzea; Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea; aplikagarria den araudian ezarritako titulu profesionaleko bat egiaztatzea; zerbitzuak ematean, zerbitzu-prestazioen kontratua izatea mendetasun-egoeran dagoen pertsonarekin edota lan-kontratua izatea (zuzenean onuradunarekin, edota mendetasun-egoeran dagoen pertsonarekin kontratu bat duen laguntzaile pertsonalen zerbitzuetako enpresa batekin); eta ez izatea onuradunaren ezkontidea edo bikotekidea, edota ahaidea (odolkidetasunezkoa, kidetasunezkoa edo adopzio bidezkoa, hirugarren ahaidetasun-mailaraino), eta ez izatea familia-harreraren ondoriozko harremana.

(2014ko azaroaren 1ean mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen ari diren profesionaleri dagokienez –betiere Gizarte Segurantzaren alta-egoeran egotea egiaztatuta:

- 45 urte edo gehiago badituzte, eta gutxienez 5 urteko lan-esperientzia egiaztatzen badute (2014ko azaroaren 1aren aurreko 10 urteetan), titulu profesionalaren baldintza beteta dutela iritziko zaio.
- Aurreko baldintzak betetzen ez badituzte, behin-behinean iritziko zaio titulu profesionalaren baldintza betetzen dutela; laguntzaile pertsonalak 5 urteko epea izango du eskatutako kualifikazio profesionala lortzeko, eta epe hori igaro ostean lortu ez badu, ezin izango da berriro laguntzaile pertsonal gisa kontratatu laguntzaile pertsonala hartzeko prestazio ekonomikoan esparruan, lortzen duen arte.

3.- Jaso daitekeen zenbatekoa: Prestazioaren zenbatekoa zehazteko, Aldundiak prestazio horretarako urtero ezarritako gehieneko zenbatekoari ehuneko bat aplikatuko zaio, kontuan hartuta onuradunaren ahalmen ekonomikoa eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin duen erlazioa.

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Eskabidea GOFEn² edo udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan³ egin behar da, eredu ofizialarekin bat, BAPen adierazitako epean, eta dokumentazio espezifiko hau aurkeztu behar da:

- Familiako kide konputagarri guztien NANA; sarreren eta ondasunen zinpeko aitortpena; eta Arabako Lurralde Historikotik kanpo kokatutako ondasunen titulartasunaren egiaztagirak.
- Banku-kontuaren identifikazio-fitxa, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari emandako baimenak, izaera pertsonaleko datuak erabiltzeko eta beste administrazio batzuen datu-baseak kontsultatzeko.

2 GOFEn: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

3 Gida honetan udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuez egiten diren erreferentziak Gasteizen bizi ez diren pertsonentzat dira.

- Prestazio honi dagokion inprimakiaren eredu ofizial espezifikoa, behar bezala osatuta.
- Laguntzaile pertsonalarekin/pertsonalekin egindako kontratua edo aurrekontratua, edota laguntzaile pertsonalen zerbitzua ematen duen erakundearekin egindakoa; laguntzaile pertsonalaren/pertsonalen tituluen egiaztagiria, edota zerbitzua ematen duen erakundearen zinpeko aitortpena, adierazten duena laguntzaile pertsonal gisa jarduten duten pertsonak lege zezarritako titulua dutela; eta onuradunak laguntzaile pertsonala/ak lan-kontratu bidez kontratatatu baditu, langileak Gizarte Segurantzaren alta-eskabi-dea egin duela edo alta eman zaiola adierazten duen egiaztagiria. (Onuradunak 2014ko azaroaren 1ean jada laguntzaile pertsonal bat kontratatuta badu, baina kontratua ez badator bat 39/14 Foru Dekretuan ezarritakoarekin, hari egokitutako kontratu berri bat aurkeztu beharko du. Aurrez zuen kontratua aurrekontratutzat hartuko da, eta laguntzaile pertsonala hartzeko prestazio ekonomikoaren ordainketa jasotzeko, araudi berriari egokitutako kontratua aurkeztu beharko du).

5.- BATERAGARRITASUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK:

a) Arabako Foru Aldundiaren prestazioei eta zerbitzuei dagokienez:

- Laguntzaile pertsonala hartzeko prestazio ekonomikoa bateragarria da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arruntarekin, betiere lotuta badago zerbitzu bateragarri batekin.
- Bateragarria da familiak atsedenaldirik bat hartzeko modalitateko zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoarekin (dena den, prestazio hori lotuta badago etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzuarekin, desgaituentzako etxebizitza laguntzaile-dunen zerbitzuarekin, edota egoitza-zentroko zerbitzuarekin, laguntzaile pertsonala hartzeko prestazio ekonomikoa etenda geratuko da).
- Bateragarria da beste zerbitzu hauekin ere: norbanakoaren autonomia sustatzeko zerbitzuak; eguneko zentroko eta eguneko arretako zerbitzua (modalitate arrunta eta familiak atsedenaldirik bat hartzekoa), gaueko zentroko zerbitzua (modalitate arrunta eta familiak atsedenaldirik bat hartzekoa), ostatu emateko zerbitzuak (etxebizitza komunitarioetan edo desgaituentzako etxebizitza laguntzaile-dunetan) eta egoitza-zentroak (familiak atsedenaldirik bat hartzeko modalitatea). Bateragarria da, halaber, Eusko Jaurlaritzaren telelaguntza-zerbitzuarekin.
(Prestazioak bateragarriak badira elkarren artean edo zerbitzuekin, kenkariak aplikatuko dira prestazioen zenbatekoan).

b) Bateragarria da Estatuko araudian jasota dauden eta antzeko xedeak dituzten prestazio ekonomikoekin (ikusita atal hau: "39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoen xedapen komunak").

6.- Oharrak: Prestazioaren onuradunak betebeharra du jasotako zenbateko guztia laguntzaile pertsonala/ak kontratatuzko erabiltzeko, eta urtero, lehen hiruhilekoan, aurreko urteko benetako gastuaren egiaztagiria aurkezteko, bai Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari etxebizitza sartzeko baimena emateko betebeharra ere, prestazioa egokituz jotzeko oinarri hartutako baldintzek bere horretan irauten dutela egiaztatu dezan. Onuradunak betebehara horiek betetzean hila-bete baino gutxiagoko atzerapena badu, prestazioa eten egingo zaio, eta hila-bete baino gehiagoko atzerapena badu, prestazioa azkenduta geratuko da.

Onuradunak zuzenean kontratatu badu laguntzaile pertsonala, eta aldatu nahi badu edo aldi baterako ordezko bat izendatu nahi badu (laguntzaile pertsonala aldi baterako baja-egoeran badago, betiere), Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinarazi beharko dio, aurrez, edota aldaketa egin den datatik aurrera 10 egun balioduneko epean gehienez. (Laguntzaile pertsonala aldi baterako ezintasun-egoeran 15 egunez baino gehiagoz egoten bada, eta onuradunak ez badu ordezko bat kontratatzen bajak irauten duen bitartean, prestazioa azkenduta geratuko da).

Ahaideak zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa

1.- Kontzeptua: Aldizkako prestazio ekonomiko bat da, helburu duena mendetasun-maila aitortuta duten pertsonen zaintzaile ez-profesionalek emandako arretatik eratorritako gastuak ordaintzen laguntzea.

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- Onuradunak I. mailako mendetasuna (40 puntu edo gehiago), II. mailakoa edo III. mailakoa aitortuta izatea.
- BAPen bidez prestazio hori egokia dela iritzi izana.
- Mendetasun-egoeran dagoen pertsonak arreta bere ohiko etxebizitzan jasotzea (ohiko etxebizitza ezin izan daiteke ospitale edo egoitza publiko edo pribaturik), eta etxebizitzak bizigarritasun-baldintza egokiak izatea, zaintzak egoki eman daitezkeela bermatzeko.
- Zaintzailearen arreta, zaintza eta prestakuntza egokiak izatea mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren beharrei erantzuteko.
- Zaintzailea onuradunaren ohiko bizilekuan erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea (prestazioa eskatzeko dokumentazio osagarria aurkezteko data baino urtebete lehenago gutxienez), eta onuradunak eta zaintzaileak ahaidetasun-harremana izatea (ezkontza bidezkoa edo antzeko harremana, edota odolkidetasunezkoa, kideetasunezkoa edo adopzio bidezkoa, hirugarren ahaidetasun-mailaraino), edota familia-harreraren ondoriozko harremana izatea.
(Araudian jasotako kasu batzuetan, salbuetsi egin daitezke mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren ahaidea izateko eta haren etxebizitzan erroldatuta egoteko betebeharrak).
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari edo udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuari etxebizitzan sartzeko baimena ematea, prestazioa egokituz jotzeko oinarri hartutako baldintzek bere horretan irauten dutela egiaztatzeko beharrezko esku-hartze teknikoak egin ditzan.

Zaintzaileak baldintza hauek bete beharko ditu: 18 urtetik gorakoa izatea; Espainiako estatuan legez bizitzea; lehen aipatutako pertsona onuradunarekin izan beharreko ahaidetasun-harremani eta bizikidetzari buruzko baldintzak betetzea; zaintza- eta laguntza-zereginak behar bezala egiteko baldintza egokiak betetzea; nahikoa denbora izatea mendetasun-egoeran dagoen pertsonari arreta emateko; eta administrazio publikoek eskatutako prestakuntza-jarduerak egitea.

3.- Jaso daitekeen zenbatekoa: Prestazioaren zenbatekoa zehazteko, Aldundiak prestazio horretarako urtero ezarritako gehieneko zenba-

tekoari ehuneko bat aplikatuko zaio, kontuan hartuta onuradunaren ahalmen ekonomikoa eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin duen erlazioa.

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Eskabidea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean edo udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin behar da, eredu ofizialarekin bat, BAPen adierazitako epean, eta dokumentazio espezifikoa haurkeztu behar da:

- Familiako kide konputagarri guztien NANA; sarreraren eta ondasunen zinpeko aitortpena; eta Arabako Lurralde Historikotik kanpo kokatutako ondasunen titulartasunaren egiaztagiriak.
- Banku-kontuaren identifikazio-fitxa, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari emandako baimenak, izaera pertsonaleko erabiltzeko eta beste administrazio batzuen datu-baseak kontsultatzen.
- Prestazio honi dagokion inprimakiaren eredu ofizial espezifikoa, behar bezala osatuta.
- Mendetasun-egoeran dagoen pertsonari arreta emateko konpromisoa, eredu ofizialarekin bat, eta familiako kideek zaintzaile nagusi izateko izendatzeari emandako onepena.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

a) Arabako Foru Aldundiaren prestazioei eta zerbitzuei dagokienez:

- Prestazio ekonomiko hau bateragarria da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arruntarekin, betiere lotuta badago zerbitzu bateragarri batekin.
- Bateragarria da familiak atsedenaldirik bat hartzeko modalitateko zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoarekin (dena den, prestazio hori lotuta badago etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzuarekin, desgaituentzako etxebizitza laguntzaile dunen zerbitzuarekin, edota egoitza-zentroko zerbitzuarekin, ahaideak zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa etenda geratuko da).
- Bateragarria da beste zerbitzu hauekin ere: norbanakoaren autonomia sustatzeko zerbitzuak; etxez etxeko laguntza-zerbitzua; eguneko zentroko eta eguneko arretako zerbitzua (modalitate arrunta eta familiak atsedenaldirik bat hartzekoa), gaueko zentroko zerbitzua (modalitate arrunta eta familiak atsedenaldirik bat hartzekoa), ostatu emateko zerbitzuak (etxebizitza komunitarioetan edo desgaituentzako etxebizitza laguntzaile duntan) eta egoitza-zentroak (familiak atsedenaldirik bat hartzeko modalitateak). Bateragarria da, halaber, Eusko Jaurlaritzaren telelaguntza-zerbitzuarekin.

(Prestazioak bateragarriak badira elkarren artean edo zerbitzuekin, kenkariak aplikatuko dira prestazioen zenbatekoan).

b) Bateragarria da Estatuko araudian jasota dauden eta antzeko xedek dituzten prestazio ekonomikoekin (ikusita atal hau: "39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoaren xedapen komunak"), bai eta bizitza pertsonala, lan-jarduera eta familiarterako bizitza bateragarri egite aldera Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzekin ere.

6.- Oharrak: Prestazioaren onuradunak betebeharra du egiaztatzen jasotako zenbateko guztia mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren arretarako eta haren beharrei erantzuteko erabiltzen duela, bai Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari etxebizitzan sartzeko baimena

emateko betebeharra ere, prestazioa egokitzat jotzeko oinarri hartutako baldintzek bere horretan irauten dutela egiaztatzeko beharrezko esku-hartze teknikoak egin ditzan. Onuradunak betebeharrorik ez izatean hilabete baino gutxiagoko atzerapena badu, prestazioa eten egingo zaio, eta hilabete baino gehiagoko atzerapena badu, prestazioa azkenduta geratuko da.

Onuradunak zaintzailea aldatu nahi badu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinarazi beharko dio, aurrez, edota ordezkapena egin den datatik aurrera 10 egun balioduneko epean gehienez, eta zaintzaile berriak dagozkion funtzioak betetzeko baldintza guztiak bete beharko ditu (araudian jasotako salbuespen-kasuetan izan ezik).

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arrunta

1.- Kontzeptua: Aldizkako prestazio ekonomikoa bat da, helburu duena Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuen sarekoak ez diren zerbitzuen eta zentroen kostuak finantzatzen laguntzea, gehienez ere urteko 45 egun edo gaueko aldietarako. Prestazio hau ez da hartuko lehentasunezko baliabidetzat BAPen, neurri subsidiariorantz baizik, Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuen sarean plaza hutsik ez dagoen bitartean (araudian jasotako salbuespen-kasuetan izan ezik).

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- Onuradunak I. mailako mendetasuna (40 puntu edo gehiago), II. mailakoa edo III. mailakoa aitortuta izatea.
- BAPen bidez prestazio hori egokia dela iritzi izana.
- Prestazioarekin lotura duen zerbitzua jasotzeko berariazko baldintzak betetzea.
- Onuradunak Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuen saretik kanpoko zerbitzu edo zentro batean plaza duela adierazten duen egiaztagiria (zerbitzuak edo zentroak Arabako Lurralde Historikoen egon behar du, eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa esparruan jarduteko ahala aitortzen dion Arabako Foru Aldundiaren baimena eta egiaztagiria izan behar ditu).

3.- Jaso daitekeen zenbatekoa: Prestazioaren zenbatekoa zehazteko, Aldundiak prestazio horretarako urtero ezarritako gehieneko zenbatekoari ehuneko bat aplikatuko zaio, kontuan hartuta onuradunaren ahalmen ekonomikoa eta lanbide arteko gutxieneko soldatarekin duen erlazioa.

(Ikuspegi sozioekonomikotik babesgabetasun-egoera berezi batean dauden pertsonen –beharrezko dutenean eguneko zentro bat edo eguneko arretako zerbitzu bat erabiltzea, edota gaueko zentro bat, etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzu bat, desgaituentzako etxebizitza laguntzaileduen zerbitzu bat, edota egoitza-zerbitzu edo -zentro bat erabiltzea, arreta jasotzeko beste hautabiderik ez dutelako, eta haien ahalmen ekonomikoa, prestazioaren zenbatekoa kontuan hartuta, ez bada nahikoa behar duten zentroa edo zerbitzua lortzeko–, beste zenbateko gehigarri bat jasoko dute, prestazioaren osagarri, eta zenbateko horri ordainketa-geroratze bat eta zor-aitorpen bat aplikatuko zaio).

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Eskabidea GOFEn⁴ edo udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan⁵ egin behar da, eredu ofizialarekin bat,

4 GOFE: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

5 Gida honetan udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuez egiten diren erreferentziak Gasteizen bizi ez diren pertsonentzat dira.

BAPen adierazitako epean, eta dokumentazio espezifiko hau aurkeztu behar da:

- Familiako kide konputagarri guztien NANA; sarreraren eta ondasunen zinpeko aitortena; eta Arabako Lurralde Historikotik kanpo kokatutako ondasunen titulartasunaren egiaztagiriak.
- Banku-kontuaren identifikazio-fitxa, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari emandako baimenak, izaera pertsonaleko datuak erabiltzeko eta beste administrazio batzuen datu-baseak kontsultatzeko.
- Prestazio honi dagokion inprimakiaren eredu ofizial espezifikoa, behar bezala osatuta.
- Zentro pribatuaren eta mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren arteko kontratua edo aurrekontratua, arretaren konpromisoa jasotzen duena, gutxienez datu hauek zehaztuta: zentroko egonaldiaren hasiera-data, hilean ordaindu beharreko prezioa eta kontratatutako zerbitzuaren edukia.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

a) Arabako Foru Aldundiaren prestazioei eta zerbitzuei dagokienez:

- Prestazio ekonomiko hau bateragarria da laguntzaile pertsonala hartzeko eta ahaideak zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoekin, betiere zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arrunta haiekin bateragarria den zerbitzu batekin lotuta badago.
- Bateragarria da prestazioarekin lotuta dagoen zerbitzuarekin bateragarriak diren zerbitzuekin. Eta bateragarria da Eusko Jaur-laritzaren telelaguntza-zerbitzuarekin, kasu honetan izan ezik: zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arruntaren helburua de-nea adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzua erabiltzea, edota desgaitasuna edo buruko gaixotasuna duten pertsonentzako etxebizitza laguntzaile duden zerbitzua nahiz egoitza-zerbitzua edo -zentroa erabiltzea; kasu horretan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arrunta ez da bateragarria telelaguntza-zerbitzuarekin.
- Bateragarria da familiak atsedenaldirik bat hartzeko modalitateko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoarekin (nolanahi ere, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arrunta etenda gera daiteke, kontuan hartuta zer erlaziorik dagoen modalitate arrunteko zerbitzu-motaren eta familiak atsedenaldirik bat hartzeko modalitateko zerbitzu-motaren artean).

(Prestazioak bateragarriak badira elkarren artean edo zerbitzuekin, kenkariak aplikatuko dira prestazioen zenbatekoan).

b) Bateragarria da Estatuko araudian jasota dauden eta antzeko xedeak dituzten prestazio ekonomikoekin (ikusita atal hau: "39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoaren xedapen komunak").

6.- Oharrak: Prestazioaren onuradunak betebeharra du jasotako zenbateko guztia emandako prestazioaren helburu den zerbitzua kontratatzeko erabiltzeko, eta urtero, lehen hiruhilekoan, aurreko urteko benetako gastuaren egiaztagiria aurkezteko. Onuradunak betebeharrorik betetzean hilabete baino gutxiagoko atzerapena badu, prestazioa eten egingo zaio, eta hilabete baino gehiagoko atzerapena badu, prestazioa azkenduta geratuko da.

Onuradunak zentroz aldatu nahi badu, horretarako baimena eskatu beharko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, bai eta prestazio ekonomikoari euts diezaion ere, eta horretarako, zentro berriarekin sinatutako kontratua edo aurrekontratua aurkeztu beharko du.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, familiak atsedenaldi bat hartzeko modalitatea

1.- Kontzeptua: Prestazio ekonomiko honen helburua da Foru Aldundiaren gizarte-zerbitzuen sarekoak ez diren zerbitzuen eta zentroen kostuak finantzatzen laguntzea, gehienez ere urteko 45 egun edo gaueko aldiatarako, mendetasun-maila aitortuta duen pertsona baten zaintzaileek atsedeen hartzeko, etxebizitzan berrikuntzak egiteko, ospitaleratze edo antzeko zereginetarako egun batzuk behar dituztenean; zehazki, zentro- edo zerbitzu mota hauen gastuak: eguneko zentroa edo eguneko arretako zerbitzua, adinekoentzako gaueko zentroa, etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzua, desgaituentzako etxebizitza laguntzaile duden zerbitzua, edo egoitza-zerbitzua edo -zentroa.

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- Onuradunak I. mailako mendetasuna (40 puntu edo gehiago), II. mailakoa edo III. mailakoa aitortuta izatea.
- BAPen bidez prestazio hori egokia dela iritzi izana.
- Prestazioarekin lotura duen zerbitzua jasotzeko berariazko baldintzak betetzea.
- Mendetasun-egoeran dagoen pertsonak eskuarki arreta bere etxebizitzan jasotzea, familiak atsedenaldi bat hartzeko egonaldiaren aurretik nahiz ondoren (dena den, atsedenaldiak irauten duen bitartean mendetasun-egoera larritzeagatik edo familiaren egoeran bat-bateko aldiaketa bat gertatzeagatik ezin badu bere etxebizitzara itzuli, familiak atsedenaldi bat hartzeko modalitateko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arrunt bihurtuko da).
- Prestazioarekin lotutako zentro edo zerbitzu pribatua Arabako Lurralde Historikoan egotea, eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren esparruan jarduteko ahala aitor-tzen dion Arabako Foru Aldundiaren baimena eta egiaztagiria izatea.

3.- Jaso daitekeen zenbatekoa: Foru Dekretu bidez ezarriko da familiak atsedenaldi bat hartzeko modalitateko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa, kontuan hartuta zer zerbitzu-motari lotuta dagoen prestazioa.

(Ikuspegi sozioekonomikotik babesgabetasun-egoera berezi batean dauden pertsonak –beharrezko dutenean eguneko zentro bat edo eguneko arretako zerbitzu bat erabiltzea, edota gaueko zentro bat, etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzu bat, desgaituentzako etxebizitza laguntzaile duden zerbitzu bat, edota egoitza-zerbitzu edo -zentro bat erabiltzea, arreta jasotzeko beste hautabiderik ez dutelako, eta haien ahalmen ekonomikoa, prestazioaren zenbatekoa kontuan hartuta, ez bada nahikoa behar duten zentroa edo zerbitzua lortzeko–, beste zenbateko gehigarri bat jasoko dute, prestazioaren osagarri, eta zenbateko horri ordainketa-geroratze bat eta zor-aitopien bat aplikatuko zaio).

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Eskabidea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean edo udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egin

behar da, eredu ofizialarekin bat, eta dokumentazio espezifiko hau aurkeztu behar da:

- Familiako kide konputagarri guztien NANA; sarreraren eta ondasunen zinpeko aitortpena; eta Arabako Lurralde Historikotik kanpo kokatutako ondasunen titulartasunaren egiaztatgiak.
- Banku-kontuaren identifikazio-fitxa, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari emandako baimenak, izaera pertsonaleko datuak erabiltzeko eta beste administrazio batzuen datu-baseak kontsultatzeko.
- Prestazio honi dagokion inprimakiaren eredu ofizial espezifikoa, behar bezala osatuta.
- Eskatutako gau edo egun kopurua, kontuan hartuta familiak atsedendaldi bat hartzeko modalitatean erabiltzen den zerbitzuaren edo zentroaren ezaugarriak.

Laguntza egonaldia amaitu ondoren ordainduko da, eta, horretarako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari aurkeztu behar zaio jatorrizko faktura, zentroak edo zerbitzuak sinatuta eta zigilatuta, eta egonaldiaren gau edo egun kopurua zehaztuta, bai eta sarrera- eta irteeratakiak ere, eta fakturaren ordainketaren egiaztatgiriak ere aurkeztu beharko da.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

a) Arabako Foru Aldundiaren prestazioei eta zerbitzuei dagokienez:

- Prestazio hau bateragarria da laguntzaile pertsonala hartzeko eta ahaideak zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoekin, betiere familiak atsedendaldi bat hartzeko modalitateko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa lotuta badago aurrez aipatutako prestazio horiekin bateragarria den zerbitzu batekin (nolanahi ere, familiak atsedendaldi bat hartzeko modalitateko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa baliatzen bada egonaldia etxebizitza komunitarioetan ostatu emateko zerbitzuan, desgaituentzako etxebizitza laguntzailearen zerbitzuan edo egoitza-zerbitzu edo -zentro batean egiteko, laguntzaile pertsonala hartzeko prestazio ekonomikoa edota ahaideak zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa etenda geratuko da, familiak atsedendaldi bat hartzeko egonaldiak irauten duen bitartean).
- Bateragarria da prestazioarekin lotutako zerbitzuarekin bateragarriak diren zerbitzuekin, eta Eusko Jaurlaritzaren telelaguntza-zerbitzuarekin.
- Bateragarria da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arruntarekin (nolanahi ere, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko arrunta etenda gera daiteke, kontuan hartuta zer erlazio dagoen modalitate arrunteko zerbitzu-motaren eta familiak atsedendaldi bat hartzeko modalitateko zerbitzu-motaren artean).

(Prestazioak bateragarriak badira elkarren artean edo zerbitzuekin, kenkariak aplikatuko dira prestazioen zenbatekoan).

b) Bateragarria da Estatuko araudian jasota dauden eta antzeko xedeak dituzten prestazio ekonomikoekin (ikusi atal hau: "39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoen xedapen komunak").

6.- Oharrak: Ezein kasutan ez da ordainduko Ebazpenean onetsitako egun edo gau kopurua baino kopuru handiagorik. Zentroan edo zerbitzuan egindako egonaldiaren egiaztatutako egun edo gau kopurua onetsitako kopurua baino txikiagoa bada, benetan igarotako egun edo gau kopurua ordainduko da.

LOTUTAKO LEGEDIA

- "39/2006 Legea, abenduaren 14koa, norbanakoaren autonomia eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta sustatzeari buruzkoa, eta bere aldaketak.
- 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluarrena. Horren bidez arautzen da zer prozeduraren bidez onartzen den mendetasun-egoera, nola kalifikatzen den desgaitasuna, noiz aitortzen den norbaitek garapen-nahasmenduak edota horiek pairatzeko arriskua duela, eta nork duen eskubidea egoera horietan Arabako gizarte-zerbitzuetako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko, eta zer prozeduraren bitartez (98 zk ALHAOa, 2014-09-01ekoa). Eta bere aldaketak (Diputatuen Kontseiluaren 50/2014 (urriaren 7koa) eta 58/2014 (azaroaren 11koa) Foru Dekretuak (115 zk, 2014-10-10ekoa, eta 133 zk, 2014-11-11koa, ALHAOak).
- 39/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1eko Diputatuen Kontseiluarrena. Haren bidez arautzen dira mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko eta haien autonomia sustatzeko sistemen prestazio ekonomikoak (98 zk ALHAOa, 2014-09-01ekoa) eta hutsen zuzenketa (101 zk ALHAOa, 2014-09-08koa)".

ARGITALPEN HAU 2014KO AZAROAN EDITATU ZEN, ETA DATA HORRE-TAN INDARREAN ZEGOEN ARAUDIAN OINARRITZEN DA EDUKIA.